

Elortxuriko azkon muturra

Jaizkibel mendiaren ifarraldetik, itsas-hegalak zehar maiz ibiltzen naiz, bereziki alderdi horretan Harri-Aroko azternategiak aurkitu nituenetik, leku-izen bilketan eta bazterrak miatzen. Ibilaldi horietako batean, 1987ko urtarrilaren 6an, aurkikuntza bitxia egin nuen Elortxuri deritzan tokian: Solutre aldiko azkon muturra.

Aldi bereko suharrizko tresneria ederrik aurkitu zen Landerbasoko Aizpitarren eta Isturitzeko Oxozelaian; hala ere, tokiz zein tailuz oso berezia deritzot Elortxuriko honi. Horregatik, Aranzadi Elkarteak 1971ean Jose Migel Barandiaran jaunari omenez eskaini zion Munibe liburukian Eibarko Eneolitos aldiko harrizko aizkoraren

lantxoak eskaindu nion bezala, oraingoan Elortxuriko azkon mutur honen eskaintza izango dut aukera, ataundarrek Nondik zenbaki berezia omenez eskaintzean.

Jaizkibel mendia, edonork dakienez, geologiaz hondar harrizkoa da eta estratoak itsasaldera erortzen zaizkio; ifarraldera beraz. Inguru horietan, lehenik, Harri-Aroan ehiza-arrantzatik gizona bizitu zen eta geroago abelzaintzaz gure mende honen haserara arte. Bildu ditudan berriek eta aurkitu ditudan azternak erakusten dutenez. Inguru horretan kokatzen da Elortxuri, Marla deritzan ordekaren gainetik eta Justiz baserriaren azpikaldetik. Zehaztasunzati honako hau gehituko nuke, Ametzakauko maldan Hondarribirako urak hartzen diren Iturgaingo errekaen goiti, lehenengo sifoi-itxolaren ondoan, Marlarako bidean bertan, Instituto Geográfico y Catastral-eko 1: 50.000 eskaladun maparen 41. orrian honako koordenadak: 1° 51' 25" ; 43° 22' 44". Itsa-

soaz 70 m. goitik.

Behar bada, aurkikuntza ez da hain harrigarria, zeren duela lau urte, Marlan bertan aurkitu nuen azternategian, goi Paleolitos ezik Mustier aldiko suharrizko tresnak ere bai, Jesus Altuna adiskideak ikustatu zuenez.

Elortxuriko azkon mutur honen bitxitasuna Solutre aldiko tresnak urri izateaz gain material eta tailukeran datza. Ereintz hostoaren forma du, suharri beltzean bikain tailatua. Bere neurriak, alderik handienetan:

43,5 mm. luze.
20,5 mm. zabal.
9,0 mm. sendo.

Esan bezala, tailu ttipiz biziki ongi landua. Hargatik ematen dut Solutre aldikotzat, hosto iduriak gainera lantze teknikan oinarriturik. Tailu era hori Madalen aldirako desagertu zen, nahiz eta berriro


Eneolitos aldiaren hartara hurbildu, inoiz ez zen antzinako teknika hura gainditzera iritsi.

Inguru horretan lehendik ere beste zenbait suharrizko tresna zati aurkituak nituen, bereziki uren sifoi-itxola eraikitzean irauli ziren lurretan agertuak; baina, hau ordea, izatekotan goragotik eroria izan daiteke, itxolatik hamarren bat metro gorago aurkitu nuen.

Solutre aldia duela 30 edo 35.000 urte inguruan kokatzen da. Baina ez da batere harrigarria Jaizkibelgo toki horretan aurkitzea, esan bezala, Erdiko Paleolitos handik beheaxeago Marlan aurkitzen denez.

Aipaturiko aurkikuntzen oroitagiria prestatuak dit, baina oraindik leku-izen jatorren xehetasunen faltaz utzia. Zeren, beldur naiz behin oker emana betiko oker geldituko ote den eta beharrezko xehetasunak ez dira hain errezak gure mende honen lehen partetik eremutat ezagutzen den Jaizkibel mendiaren itsas-hegalean; pertsona zaharrendik era desberdinetan jasotzen bai ditut eta agiri zaharrik urri denez. Hala ere, lehen saioa argitaratua dut "Jaizkibel mendiko izen zahar batzuk" izenburuaz; ikus Euskera, XXXIII (1988), 261-271 orrialdeak. Bitartean hara hor azkon mutur bitxi horren berri, gai hauetan guziok maisu izan dugun J. M. Barandiaranen, ohorez, chunurtegarrena ospatzeko.

Juan SAN MARTIN
ARARTEKOA



Elortxuriko azkon muturra.